

Hiri eta herrien barreiatzea gertatu da, ia lau hamarkadetan egin den zonen arabera hirigintzaren ondorioz, araudiari lehentasuna eman baitzaio, hiri proiektuaren kaltetan. Garatze modu horrek gure paisaiak hutsaldu ditu eta gure hiri eta herrien hedadurak laidoztatu, etxetxo beteriko zonak, merkataritza gunek eta langintza eremuak eginez, bai hiri inguruetan, bai eta, gehiago hedatuz, baserrialdeetan ere.

Gaur egun, «ondoriotasun» hori kezka zaigu: hiri inguruak eta oraindik baserrialdeko giroan diren herrietako inguruak ere, aldatzen joateko gai ote dira, gaur egungo gizarte eta ingurumen beharrei eta herritarren nahikundeei erantzuteko gisan? Zer nolako hirigintza gaurko egunotan?

Testuinguru honetan, nola pusa herriak, beraien garapena hobeki kontrolatzera eta kalitatezko bizilekuen sortzeko ekintzetara lotzera?

- ◆ Pirinio Atlantikoetako Arkitektura, Hirigintza eta Ingurumen Kontseiluak (CAUE 64), Pirinio Atlantikoetako Kontseilu Nagusiarekin elkarlanean, departamenduaren Agenda 21 delakoaren barnean, honako erakusketa hau proposatzen du :

« Barreiatu gabe bizi »

2014ko maiatzaren 6tik 21era, Pauen, Departamenduaren Etxean,
eta gero, maiatzaren 22tik ekainaren 6ra, Baionan, Kontseilu Nagusiak
Errobiko Kasernan duen ordezkaritzan.

Sartzea urririk, 9:30etik 17:00etara

Erakusketa hori Hérault-eko CAUE erakundeak asmatu eta egin du, bertako Kontseilu Nagusiarekin elkarlanean eta Languedoc-Roussillon-eko Kultura Gaietarako Eskualde Zuzendaritzaren (DRAC-KGEZ) diru laguntzaz.

Sei sekuentzian antolaturik, lehen ezagutza bat eskaintzen du hiri barreiatzeaz, hiri itxuretzaz, bai eta lurraldeen eta hauei lotu proiektuen neurrietaz; eskaintzen dizkigu ere antolaketaren gaineko oinarrizko ezagutzak, espazio publikotik etxea den espazio pribaturaino joanik. Azkenik, ororen buru, gaur egungo hirigintza erronkei erantzuten dieten zenbait proiektu berritzaile agertzen ditu, jadanik eginak direnak batzuk, egin bidean direnak besteak.

